

EUDEL. PPK eta PSEk ez dutela «adostasunik bilatu nahi» deitoratu du Erraztik

PSE-EErekin laster adostasuna iristeko aukera ikusten du Eudelek

Sozialisten proposamena aztertuko du datorren astean Eudeleko Batzorde Eragileak

Erredakzioa | DONOSTIA

Aniztasunari buruzko testua PSE-EErekin hitzartzen saiatuko da datozen egunotan Eudel, atzo bertako lehendakari Karmelo Sainz de la Mazak adierazi zuenez. Eudelek batzar nagusia egin zuen atzo, Zumarragan.

Batzarraren aurretik kazetariari egindako adierazpenetan, Sainz de la Mazak jakinarazi zuen aniztasunaren alde Eudelek egin duen mozioaren zirriborroaren gainean bere proposamena aurkeztu zuela herenegun PSE-EEk. Batetik, Alberto Buen Eudeleko presidenteor-

dea eta Rodolfo Ares PSE-EEko Batzorde Eragileko koordinatzailea eta, bestetik, Sainz de la Maza eta EAJko bi ordezkari izan ziren bileran.

Testu horren gainean «lanean» ari direla esan zuen Eudeleko presidentea, eta laster EAJ eta PSE-EEren «proposamenen

artean hurbilketa bilatzeko aukera» ikusten dutela esan zuen.

Sozialistek mozioan «ETAren eta bere jardueraren gaitzespen argia» eta «bizitzeko eskubidea- ren aldeko konpromisoa» agertzea ere nahi dute sozialistek. Gainera, herri guztietan «mobilizazio sozialerako» eta mehatxatuta dauden aldeko foroak sortzeko eskatzen dute. Mozio hori onartzen ez duenari gobernatzen duen udalerrietan babesa kentzea eta hauteskunde- ondoan «gobernabidea ez errazteko formulak bilatzea eta alkatetzak izateko aukera eragozte» galdegin du PSEk.

Illo horretan, Alberto Buen Eudeleko presidenteordea us- te du EAJ, EA eta EB-IU ez du- tela «zailtasun handirik» izango «ETAren gaitzespena agertuko den txosten bat babesteko». So- zialisten proposamena dato- rren astean Eudeleko Batzorde Eragileak egingo duen bileran aztertuko da. Eudelen ordezkari- tza ez badute ere, bertan izan- go dira EA eta EB-IU ere. Bilera- ren xedea proposamenen arte- an «guztiona izango den mozio bat aurrera atera ahal izatea da», sozialistek diotenez.

Mehatxatutako zinegotziei babesa

Sainz de la Mazak esan zuen «inolaz ere» ez dituela «bakarrik utziko» mehatxatuta dauden zi- negotziak. Dei egin zien udalei «aniztasun politiko eta soziala bermatzeko» eta, «inor ez dadi- la baztertua sentitu arrazoi ide- ologikoengatik».

Eudelen proposamenari Ba- tasunak egindako balorazioa ere aipatu zuen Sainz de la Ma- zak: «Herri honen aniztasun po- litikoa benetan defenditzen ba- du, herriko ordezkarien hilketa- ri eta erasoari ezetz esan behar dio. Hala egiten ez badu, bere hitzak hutsak izango dira».

Bestalde, Begoña Errazti EA- ko lehendakariari adierazi zuen ez duela «ulertzen» zergatik PPK eta PSOEek ez zuten sinatu Eudelen zirriborroa. Beharbada ez dutela «adostasunik bilatu nahi» esan zuen Erraztik. Haren ustez, PPK eta PSOEek «beraiek sinatu zuten terrorismoaren aurkako ituna guk sinatzea eta gure ideiei uko egitea nahi dute. Interes handiagoa dute horre- tan», esan zuen Begoña Errazti EAko lehendakariak.

PSE-EE

Legebiltzarreko eserlekua utziko du Rojok, PSOEko Zuzendaritzan sartzeko

Agentziak | GASTEIZ

PSE-EEko idazkari nagusi Javier Rojok EAEko Le- gebiltzarreko eserlekua utziko du, PSOEko Politi- ka Institutuzionaleko idaz- kari nagusiko postua har- tzeko.

Jose Luis Rodriguez Zapatero PSOEko idazka- ri nagusiak proposatuta, aho batez erabaki zuen atzo Batzorde Federalak Rojoren izendapena. Ni- colas Redondoren orde- z sartuko da Javier Rojo so- zialisten zuzendaritzan. Javier Lasartek ordezkari- tza du ziurrenik Arabako sozialisten burua Eusko Legebiltzarrean, bera izan baitzen azken hau- teskundeetan Arabako PSE-EEren zerrendako bigarrena.

Rojok eserlekua utzteak PSE-EEko Legebiltzarre- ko ordezkartzan aldake- tak eragingo ditu. Hain justu ere, aldaketa horiek iragan asteazkenean az- tertu zituen talde sozialis- tak bilera batean. Sozialis- ten iturrien arabera, bilera horretan, PSE-EEk Lege- biltzarrean eramango du- ten «lerro estrategikoa» aztertu zen, Patxi Lopez idazkari nagusi izendatu zenetik irekitako «garai berrira» egokitzeko.

Sozialistekiko elkartasun funtsa sortu dute

PSOEko Batzorde Fede- ralak sozialistek laguntze- ko elkartasun funtsa sor- tzea erabaki zuen atzo. Ekimen horren xedea da Hego Euskal Herriko hau- tetsi eta militante sozialis- tei segurtasun neurriak indartzea.

PSOEko Batzorde Fe- deralak erabaki zuen so- zialista guztiei eta gizarte- ari, oro har, elkartasun funtsari ekarpenak egite- ko eskatzea, «alderdiaren jardura politiko norma- la» bermatzeko. Horreta- rako, kontu korrantea ire- ki dute.

Jose Blanco PSOEko Antolakuntza idazkariak esan zuenez, «segurtasun falta eta indarkeriaren eraginez sortutako egoe- rei» eta sozialistek jasaten duten «presioari» aurre egiteko balio du.



GOTZON ARANBURU / ARGAZKI PRESS

Alberto Buen, Karmelo Sainz de la Maza eta Carlos Goienetxea, atzo, Zumarragan.

ETAk hildako PSE-EE eta PPko zinegotziak gogoan izan zituen batzar nagusiak

Erredakzioa | DONOSTIA

Froilan Elespe, Juan Priede eta Jose Javier Mugika ETAk hildako PSE-EEko eta PPko zinegotziak gogoan izan zituen atzo Eudelek batzar nagusian. Zinegotzi horien ome- nez, minutu bateko isilunea egin zuten Zumarragako Ze- lai-Aristi zinema aretoan bil- dutakoek. Karmelo Sainz de la Mazak ere gogoan izan zi- tuen azken urte honetan ETAk hildako beste pertso- nak, eta mehatxuak edo era- soak jasan dituztenak.

ETAren jardura ere aipatu zuen Karmelo Sainz de la Ma- zak: «Gure elkartean jarrera argia dugu: ez du balio ETA- ren indarkeriaren justifikazio-

K. SAINZ DE LA MAZA

Eudeleko lehendakaria

«Gure elkartean ez dute balio ETAren eraso- en ustezko izaera 'defentsiboak' eta horrelako argudioek»

ak, ez etikoak ez politikoak. Ez du balio mezu inplizituaz eta esplizituaz lagunduriko argu- dio lausotueta gordetzerik. Ez du balio ETAren erasoaren ustezko izaera 'defentsiboa' eta antzekoak argudiatzeak. Guretzat ez du inolako sines- garritasunik».

Alderdien arteko adostasun- naren alde azaldu zen Sainz de la Maza: «Benetako kon- promisoek gehienetan ihes egiten dute, iritzi publikoaren aurrean aurkari politikoa le- kuz kanpo uzteko jasanezine- ko tentazioa dagoelako». «In- dar gehiago gastatzen dugu horretan, erantzun bateratua eraikitzen baino», gaineratu zuen.

Batzarrean bildutakoek Eu- delen 1.773.000 euroko au- rrekontua onartu zuten, eta 20. urteurrena ospatzeko eki- taldiak egitea erabaki zuten. Bertan, 95 alkate izan ziren, deialdia 250ek jaso bazuten ere. Udal ordezkarien artean zeuden Aitor Gabilondo (EA) Zumarragako alkatea, Juan Carlos Goienetxea (EA) Ber- meokoa, Jon Jauregi (EAJ) Udalbiltzako lehendakaria eta Beasaingo alkatea eta Francisco Ruiz (PSE-EE) Por- tugaletokoa.